



K bulegoa

"Genero ikuspegia (gure) kulturan"

Saio irekia

2022ko otsailaren 1a

"Perspectiva de género en (nuestra) cultura"

Sesión abierta

1 de febrero de 2022

K bulegoak urteko lehen saio irekian “Genero-ikuspegia (gure) kulturan” eztabaидагай изан zuen. Otsailaren 1ean, asteartean, on line egindako bilera bi txandatan antolatu zen: goizez gaztelaniaz eta arratsaldez euskaraz. Guztira, kultura-sektoreko 20 lagundik gorak hartu zuen parte saioan, jakintza eta jardunbide kolektiboak ikasteko beste esperientzia batean.

Nork bere burua aurkeztu ondoren, parte-hartzaileek hitz bana partekatu zuten proposatutako gaiarekin lotzeko. Hala, generoari buruzko glosario kolektibo moduko bat sortu zen.



Mamiari heldu aurretik, hainbat lanen izenburuekin osatu zen glosarioa, balizko bibliografia batetik hartutakoak —aitzindari bezain denboragabea—, gogoeta piztu eta eztabaida elikatzeko.

Gela bat norberarena ~ Genero nahasmendua ~ Caliban eta sorgina ~ Bigarren sexua ~ King Kong Teoria

Eta zenbait pentsalariren aipuak ere ekarri ziren, bibliografia esanguratsu horren egileen hitz iradokitzaleak:

“Nagusiaren lanabasek ez dute inoiz nagusiaren etxea desmuntatuko” (Audre Lorde)

“Emakume ez da jaiotzen: egin egiten da” (Simone de Beauvoir)

“Historian zehar, anonimo emakume bat zen” (Virginia Woolf)

“Feminismoa denon kontua da” (bell hooks)

“Pertsonala politikoa da” (Egileta kolektiboa)

Sarreran, zenbait hamarkadatako borroka feministaren ondorioz genero-ikuspegia txertatzeak ekarri dituen ekarpenak nabarmendu ziren. Pertsona guztiendako eskubideak, ekitatearen eta berdintasunaren aldeko borroka eta diskriminazioaren aurkako borroka aldarrikatzeaz gain, genero-ikuspegiak sekulako balioa eman du: gure historia hobeto ezagutzea, arlo guztietan, kultura barne. Narratiba berriak eskaini dizkigu, ahanzturatik berreskuratu ditu isildutako emakumeen lana (eta ez bakarrik emakumeenak) aldarrikatu du.

Begirada zabal honen ordainari esker –explica Gerda Lernerrek dioen bezala¹–, borroka nekaezinean eraikita, Alice Guy (ehunka filmez gain, fikziozko zinemako lehen lana ondu zuen lehenengo zinegilea), Sofonisba Anguissola (arrakastako lehen emakume pintorea) edo Vivien Maierren argazki-ondarea ezagutzeko aukera izan dugu, besteak beste. Gure ingurune hurbilenean, Alice Neelen margoez gozatu dugu Guggenheimen, baita *Bagini Bagara San Telmo Museoaren* bildumaren berrikuspenaz ere, Haizea Barcenillaren eta Garazi Ansaren komisariotzapean, eta, laster, *Ahots bat Erausorentzat. Trans garai baterako epilogoa* Azkuna Zentrorako Paul B. Preciadok eta Cabello / Carceller kolektiboak ekoitzitako projektua. Paradigma berri honi pinakoteka ospetsuenak ere ezin dio muzin egin, Prado Museoak, esaterako. Izan ere, bigarren mendeurrena betetzean zuela, lehendabiziko aldiz artista emakume bati eskaini zion bakarkako erakusketa bat (Clara Peeters). Hori bai, erakusketa kalitate-irizpideen arabera soilik antolatzen zela ziurtatu beharra izan zuen erakundeko zuzendariak². Horren harira, 80ko hamarkadaz geroztik, Guerrilla Girls³ taldeak emakumeen ikusgaitasuna aldarrikatu (eta salatu) du. Paradigma-aldaaketak zer ekarri duen Angela Davisek azaltzen digu: “iraultzak porrot egin bazuen ere, giza harremanak eta bizi garen mundua ulertzeko modua eraldatu zuten hainbat aldaketa gertatu ziren”.

Eztabaidaren hasieran, genero-ikuspegia zenbait arauetan (berdintasunerako legeak, erakunde publikoen gidak) jasotzen duen **arau-esparrua** aurkeztu zen, eta, ondoren, kultura-sektorean sorkuntzarako eta ekoizpenerako laguntzen ikuspegiaz aritu ginen.

Hainbat **deialdi** aipatu ziren, besteak beste, Egile, Lanabesak, Susperka, Tokiko, Oreka, Olatuak, Mundura (Gipuzkoako Foru Aldundia), Arte Plastikoak eta Kultur Proiektuak (Bizkaiko Foru Aldundia), Kultur erakusketa eta zabalkunderako programa (Arabako Foru Aldundia), Arte eszenikoen eta musicalen jaialdiak, kontzertuak eta ikuskizunak (Nafarroako Gobernua), Film laburren ekoizpena (Espainiako Kultura Ministerioa) eta Cooperation projects Creative Europe programaren esparruan, bakar batzuk aipatzearen.

Horietan guztieta genero-ikuspegia hainbat modutan aipatzen duten artikuluak daude. Alde batetik, proiektuetan berdintasuna edo genero-ikuspegia balioesten da, erakunde eskatzaileen

¹ Begi batetik begiratuta, gure ikus-eremua mugatua da, sakontasunik gabekoa. Beste begitik begiratuta gero, ikus-eremua zabaltzen da, baina oraindik sakontasuna falta zaio. Bi begiak zabaldu behar ditugu ikus-eremu osoa eta sakontasunaren pertzepzio zehatzia izateko, The Creation of Patriarchy saiakeran jasota (1986).

² Miguel Zugaza «Erakusketa hau antolatzea erabaki genuenean, ez neki museoak emakume bati eskaini zion lehen aldia zela. Asko pozten gara horregatik, baina ez da genero-ikuspegia, kalitatezkoa baizik». Xehetasun gehiagorako, ikus Rocío de la Villaren artikulua, M-Arte y Cultura Visual aldizkarian argitaratuta.

<http://www.m-arteyculturavirtual.com/2016/10/25/a-proposito-de-clara-peeters-en-el-museo-del-prado>

³ Guerrilla Girls kolektiboak 1989an salatu zuenez, “munduko museo gehienetako arte modernoaren ataletako artisten %5 baino gutxiago emakumeak dira, baina biluzien %85 emakumezkoarenak dira”.

berdintasun-planak, programan parte hartzen duten pertsonen inguruko prestakuntza, edo, are gehiago, emakumeek zuzendutako proiektu-kuota bat ezartzen da (lehenengo balorazioa gainditu ondoren). Beste alde batetik, sexuagatik bereizten duten proiektuak baztertzen dira. Eta, azkenik, hainbat baldintza ezartzen dira gizonen eta emakumeen berdintasuna bermatzeko, hizkera ez-sexista erabiltzeko eta, zenbait kasutan, berdintasunerako planak eta genero-indarkeria prebenitzeko planak izateko, berdintasun-legeek ezartzen duten moduan. Adibidez, Bizkaian generoaren araberako eraginari buruzko aldez aurreko ebaluazio-txostena eskatzen da, neurketa-adierazleak barne hartzen dituena; Europan, berriz, *Gender Mainstreaming Toolkit* baliagarria jartzen da erakunde eskatzaileen eskura.

Parte-hartzaile gehienek genero-berdintasuna eta emakumeen sarbidea bermatzeko ahalegina eskertzen badute, beharrezkoa litzatekeela haratago joatea eta proiektuen edukia kuantitatiboki baloratzea deritzote (proiektuak sortzen, kudeatzen eta parte hartzen duenaz haratago). Gainera, laguntzen oinarri gehienak generoaren ikusmolde binariotik abiatzen dira, gizartean dagoen aniztasuna islatzen ez duen ikuskera batetik alegia, eta, gainera, generoaka banandutako laguntza eskatzen duten laguntzak ere badaude, suposizio hutsagatik ez bada nekez bete daitezkeenak. Batzuek onartzen dute deialdietan genero-ikuspegia sartzeak eragina duela proiektuen sorreran eta kudeaketan, eta batzuetan proiektuen izaera edo haren hainbat alderdi egokitutako aldatzen direla puntuazio handiagoa lortzearren. Beste batzuek politika publikoak diseinatzeko orduan ikuspegi paternalista alboratzea eskatzen dute, balorazio-batzordearen feedbacka, proiektuak sendotze aldera (genero-ikuspegiari dagokionez, esaterako). Halaber, ondo lego ke genero-ikuspegiak nabarmen eragiten duten laguntza-ildoa berriak zabaltea ere, baina Kultura Sailek sustatuak, Berdintasun Sailek deitutakoez gain. Azkenik, generoari lotutako balorazioak puntuazio orokorrean pisu handiagoa izatea aldeztu zuten hainbatek.

Laguntzen atalarekin amatzeko, **egungo hainbat deialdi** aipatu ziren, hala nola Juncal Ballestín (Artium) nazioarteko ikerketa-beka, Emakumeen Biurtekoa Ikusizko Arteetan, Tabakaleraren Noka emakume zinemagileentzako mentoring programa edo Irungo Udalaren Julia Iruretagoyena ikerketa-beka. Kultur esparrutik at, Azpitik Ierroak (SPRI) ikuspegi integrala dakar: hiru trantsizio aipatzen baititu laguntzaren xedea azaltzeko-teknologiko-digitala, energetiko-klimatikoa, sozioal eta sanitarioa—; azken horrek barne hartzen ditu, hain zuzen ere, osasun-sistemak eta arrisku pandemikoak, zahartze osasuntsua, migrazioa, zainketa-eredu berriak eta genero-berdintasuna.

Ondoren, **zenbait jardunbide egoki** mahaigaineratu ziren, proiektu, gida eta bibliografia baliagarriak. Besteak beste, honako hauek aipatu ziren: Genero-berdintasunaren egoeraren diagnostikoa antzerkiaren, dantzaren, liburuaren eta musikaren eremuan, Euskadiko sorkuntzaren eta industriaren ikuspegitik (Eusko Jaurlaritza), Kultura-ondarea eta genero-ikuspegia liburu zuria, museoetako berdintasunerako AHM autodiagnostiko osoa eta *Ciudad feminista. La lucha por el espacio en un mundo diseñado por hombres* (Leslie Kern, 2021). Gainera, hainbat tresna eztabaidatu ziren, hala nola Bechdel-en testa, filmetan oro har eta, hedaduraz, telesailetan edo beste arte-ekoizpen batzuetan dagoen genero-aldea ebaluatzen metodoa. Lurraldeko erakundeen praktika onak ere aipagai izan genituen. Adibidez, pertsona sortzaileen eztabaidea-taldeak eratu dituen elkarrekin bida, baita entzunaldi anonimoak antolatzen dituena ere, hau da, interpretatzetan ari den pertsona ikusi gabe aztertu ahal izateko. Milioika erregistro dituen artxibo batean genero-ikuspegia txertatzeko zailtasunak ere aitortu ziren, xede hori erdiesteko zenbat baliabide behar diren azpimarratuta.

Ahizpatasunaren kontzeptua ere eztabaidatu zen, hots, emakumeen arteko elkartasuna bereizkeria eta indarkeria testuinguru batean. Bide luze eta malkartsuan urratsak emateko balio dezake? Ahulguneak identifikatzeko eta arreta haietan jartzeko balio dezake? Badira zenbait ekimen sektorial, hala nola Euskal Herriko Emakume Musikarien Topaketak, musikagintzari onurak ekarri dizkiotenak, edota Bienal Mujeres Artes Visual erakundea. Panazea ez bada ere, aztertu eta urratu beharreko bidea izan daiteke, adibidez, bilera ez-mistoak antolatuz, sareak artikulatu eta ehuntzeko, agian sektoreka; finean eztabaida desitxuratzen eta adierazpen askeari kalte egiten dioten ohiko botere-roletatik ihes egiteko. Emakume musikarien arteko topaketan harira, genero-arrakalari zuzenean eragiten dioten bi une nagusiak identifikatu dira: eskola publikoetako musika-prestakuntzako ikasketen amaiera eta amatasuna. Zergatik ez egin aurre bada arrakala sortzen duenari?

Azkenik, **hizkuntzaren afera** aztertu zen generoaren ikuspegitik, behin eta berriz agertzen den gai korapilatsua. Hizkuntza aldatzen dugu errealityeari eragiteko, edo, lehenik, errealityea aldatu eta aldaketak hizkuntzan ezinbestean islatu direla espero dugu. *Hablemos claro: Retórica y uso del lenguaje en el feminismo* lanean (Teresa Maldonado Barahona, 2021), hain zuzen ere, mezu askoren iluntasuna gaitzezten da, eta bell hooksen esakunea dakar gogora: “Feminismoa mundu guztiarentzat da”. Hizkeraren auzia, hau da, modu inklusibo eta ez-sexistan adieraztea, eta, batez ere, modu eraginkor eta ulergarrian nola komunikatu, etengabe hausnarrean: hamaika gida eta monografia, gomendio, neologismo, perifrasia eta hitzen adiera berriak horren lekuko.

Bi saioak **esaldi batean laburbil genezake**: Asko aitzineratu da, mendeen zama astuna nola edo hala gaindituz; hala ere, bidea luzea dugu, eta behin eta berriro tresna eta baliabide beharrean dihardugu (batzuetan borondate falta ere antzematen da) harago joan eta etorkizun oso bestelakoa marrazteko, 20 urte barru argazkia gaur egun baino garbiagoa izan dadin.

K bulegoa dedicó la primera sesión abierta del año a abordar la “Perspectiva de género en (nuestra) cultura”. La reunión celebrada online el martes 1 de febrero se organizó en dos turnos, mañana en castellano y tarde en euskera. En total, más de 20 personas vinculadas al sector cultural participaron en la conversación, una experiencia que pone en valor el aprendizaje de saberes y haceres colectivos.

Hechas las presentaciones, cada participante compartió una palabra con la que asocia el tema propuesto. Así, se creó una especie de glosario colectivo sobre la perspectiva de género.



Antes de entrar en materia, el glosario se completó con títulos de obras de cabecera que nos sirvió de sugerencia para la reflexión posterior, una bibliografía posible, visionaria y atemporal, para alimentar el debate.

Un cuarto propio ~ El género en disputa ~ Calibán y la bruja ~ El segundo sexo ~ Teoría King Kong

Y con varias citas de pensadoras, autoras de algunas de las obras cumbre de esa bibliografía de cabecera que deberíamos tener siempre presente:

“En la mayor parte de la historia, Anónimo era una mujer” (Virginia Woolf)

“Las herramientas del amo nunca desmontarán la casa del amo” (Audre Lorde)

“No se nace mujer sino que se llega a serlo” (Simone de Beauvoir)

“El feminismo es para todo el mundo” (bell hooks)

“Lo personal es político” (Autoría colectiva)

En la introducción se hizo hincapié en las aportaciones que la inclusión de la perspectiva de género, fruto de la lucha feminista de varias décadas, ha proporcionado la sociedad. Más allá de reivindicar derechos para todas las personas, la lucha en favor de la equidad y la igualdad, y en contra de la discriminación, la perspectiva de género ha realizado una aportación de incalculable valor: un mayor conocimiento de nuestra historia, en todos los campos, cultura incluida. Nos ha proporcionado nuevas narrativas, ha rescatado del olvido y ha reivindicado el trabajo de mujeres (y no solo) que habían sido silenciadas.

Gracias a esta mirada amplia y reparadora —como explica Gerda Lerner⁴—, construida a partir de una lucha infatigable, hemos conocido el trabajo de Alice Guy (la persona que rodó la primera película de cine de ficción, además de cientos de películas), de Sofonisba Anguissola (considerada la primera mujer pintora de éxito) o más recientemente de Vivien Maier. En nuestro entorno más próximo hemos disfrutado de la obra de Alice Neel en el Guggenheim y de una revisión de la colección del Museo San Telmo en *Bagini Bagara*, comisariada por Haizea Barcenilla y Garazi Ansa, y próximamente *Una voz para Erauso. Epílogo para un tiempo trans* en Azkuna Zentroa, un proyecto de Paul B. Preciado y el colectivo Cabello / Carceller. Un nuevo paradigma que no pueden sortear ni pinacotecas tan emblemáticas como el Museo Nacional del Prado, que poco antes de cumplir su bicentenario dedicó por primera vez una exposición individual a una artista mujer, Clara Peeters, no sin antes asegurar de que la muestra se regía únicamente por criterios de calidad⁵. Una presencia femenina reclamada (y denunciada) desde la década de los 80 por el colectivo Guerrilla Girls⁶. Este cambio de paradigma lo explicita Angela Davis para la que “si bien la revolución fracasó se produjeron algunos cambios que revolucionaron la forma de entender las relaciones humanas y el mundo que habitamos”.

La discusión comenzó con la presentación del **marco normativo** que incorpora el enfoque de género en varias disposiciones (leyes de igualdad, guías de organismos públicos) para después mostrar las diferentes formas de tratar la perspectiva en ayudas a la creación y la producción en el sector cultural.

Se mencionaron varias **convocatorias** como Egile, Lanabesak, Susperka, Tokiko, Oreka, Olatuak, Mundura (Diputación Foral de Gipuzkoa), Artes Plásticas y Proyectos culturales (Diputación Foral de Bizkaia), Programas de exhibición y difusión cultural y festivales en (Diputación Foral de Álava), Festivales, conciertos, espectáculos de Artes Escénicas y Musicales (Gobierno de Navarra), Producción de cortometrajes realizados (Ministerio de Cultura de España) y Cooperation projects del programa europeo Europa Creativa, por citar solo algunas de ellas.

⁴ «Cuando miramos sólo con un ojo, nuestro campo de visión es limitado y carece de profundidad. Si miramos luego con el otro, nuestro campo visual se amplía pero todavía le falta profundidad. Sólo cuando abrimos ambos ojos a la vez logramos tener todo el campo de visión y una percepción exacta de la profundidad» recogida en *La creación del patriarcado* (1986)

⁵ Miguel Zugaza «Cuando decidimos organizar esta exposición no era consciente de que se trataba de la primera vez que el museo la dedicaba a una mujer. Nos alegramos mucho por este hecho, pero no se trata de una perspectiva de género, sino de calidad». Para más información, se puede consultar el artículo de Rocío de la Villa publicado en M-Arte y Cultura Visual.

<http://www.m-arteyculturavirtual.com/2016/10/25/a-proposito-de-clara-peeters-en-el-museo-del-prado>

⁶ El colectivo Guerrilla Girls ya denunciaba en 1989 que “menos del 5% de las y los artistas de las secciones de arte moderno de la mayoría de los museos del mundo son mujeres, pero el 85% de los desnudos son femeninos”

En todas ellas se encuentran artículos que mencionan el enfoque de género de diversas maneras. Por un lado, se valora la igualdad o perspectiva de género en los proyectos, los planes de igualdad de las organizaciones solicitantes, la formación al respecto de las personas implicadas en el programa o incluso se establece una cuota de proyectos dirigidos por mujeres (tras pasar un primer corte de valoración). Por otro lado, se excluyen los proyectos que discriminan por razón de sexo. Y por último, se establecen varios requisitos para garantizar la igualdad de hombres y mujeres, la utilización de lenguaje no sexista y, en determinados casos, la existencia de planes de igualdad y planes de prevención de violencia de género, tal y como marcan las leyes de igualdad. Por ejemplo, en Bizkaia se solicita un informe de evaluación previa del impacto en función del género que incluya indicadores de medición, mientras que en Europa se pone a disposición de las entidades solicitantes un completo *Gender Mainstreaming Toolkit*.

La mayoría de participantes valoran el esfuerzo por garantizar la igualdad de género y el acceso de las mujeres, pero se señala que sería necesario ir más allá y valorar de manera cuantitativa el contenido de los proyectos (más allá de quién lo crea, gestiona y participa en él). Además, la mayoría de los redactados parten de una concepción binaria del género, que no refleja la diversidad existente en la sociedad e incluso existen ayudas que solicitan una justificación de la asistencia segregada por géneros difícilmente de cumplimentar por mera suposición. Algunas personas reconocen que la inclusión de la perspectiva de género en las convocatorias influye en la concepción y la gestión de los proyectos, e incluso en ocasiones se adaptan y modifican aspectos de los mismos para conseguir una mayor puntuación. Otras reclaman una visión menos paternalista a la hora de diseñar las políticas públicas, feedback por parte de la comisión de valoración, que permita mejorar aspectos de los proyectos (como la perspectiva de género), e incluso líneas de ayuda que incidan de manera sustancial en el enfoque de género pero promovidas por los Departamentos de Cultura, además de las convocadas por los Departamentos de Igualdad. También se abogó porque la valoración de los apartados de género tengan más peso en el cómputo global.

Al hilo de las ayudas se citaron varias **convocatorias recientes**, como la Beca internacional de investigación Juncal Ballestín (Artium), la Bienal de Mujeres en las Artes Visuales, el programa de mentoring para mujeres cineastas noka (Tabakalera) o la beca de investigación Julia Iruretagoyena (Ayuntamiento de Irun). En ayudas no sectoriales como Azpitek (SPRI) se alude de manera integral a tres transiciones tecnológico-digital, energético-climática, socio-sanitaria; es en esta última en la que incorporan dimensiones como sistemas de salud y riesgos pandémicos, envejecimiento saludable, migración, nuevos modelos de cuidados e igualdad de género.

A continuación, se abordaron **buenas prácticas** en forma de proyectos, guías y bibliografía. Se citaron, entre otras, el Diagnóstico de situación de la igualdad de género en el ámbito del teatro, la danza, el libro y la música desde la perspectiva de la creación y la industria en Euskadi (Gobierno Vasco), el libro blanco Patrimonio cultural y perspectiva de género, el completo autodiagnóstico MAV para la igualdad en museos y la monografía *Ciudad feminista. La lucha por el espacio en un mundo diseñado por hombres* (Leslie Kern, 2021). Además, se discutieron herramientas como el test de Bechdel, un método para evaluar la brecha de género en las películas en general y, por extensión, en las series u otras producciones artísticas, y buenas prácticas en el seno de las organizaciones como grupos de discusión de personas creadoras con el objetivo de cambiar la realidad o audiciones ciegas sin ver a la persona que está interpretando. También se reconocieron

las dificultades por incorporar la perspectiva de género en el fondo de un archivo de millones de registros, para lo que se necesitan ingentes recursos.

También se discutió el concepto de **sororidad**, la solidaridad entre mujeres en un contexto de discriminación y violencia. ¿Puede servir para avanzar algunas etapas en el largo y sinuoso camino? ¿Puede servir para identificar puntos negros y poner el foco en ellos? Existen iniciativas sectoriales como Euskal Herriko Emakume Musikarien Topaketak —cuya valiosa contribución se analizó de primera mano— u organizaciones como la Bienal Mujeres Artes Visuales. Si bien no es la panacea, puede ser una vía a explorar e intensificar, existe una necesidad de reuniones no mixtas, para articular y tejer redes, tal vez de manera sectorial, para huir de los tradicionales roles de poder que a menudo distorsionan el debate y afectan a la libre expresión. Al hilo de los encuentros de mujeres músicas, se han identificado los dos momentos clave que afectan directamente a la brecha de género: el fin de los estudios de formación musical en las escuelas públicas y la maternidad. ¿Por qué no se ataja esa brecha si está identificada?

Por último se abordó la **dimensión del lenguaje** en la perspectiva de género, un tema recurrente y complejo. Cambiamos el lenguaje para afectar la realidad o esperamos a que cambie la realidad y que los cambios se reflejen indefectiblemente en el lenguaje. *Hablemos claro: Retórica y uso del lenguaje en el feminismo* (Teresa Maldonado Barahona, 2021) critica precisamente el carácter crítico de muchos mensajes y recuerda la máxima de bell hooks “El feminismo es para todo el mundo”. (cita) El problema de cómo comunicar con enfoque de género, de manera inclusiva y no sexista, y, sobre todo, de manera eficaz e inteligible sobrevuela de manera constante en la publicación de multitud de guías y monografías, recomendaciones, neologismos, perífrasis y resignificaciones de palabras.

La **conclusión** de ambas sesiones se podría resumir en una frase: Se ha avanzado mucho a pesar de una pesada herencia de siglos; sin embargo, falta un gran camino por recorrer y, reiteradamente, nos faltan herramientas y recursos (y a veces una mayor voluntad) para ir más allá y dibujar un futuro bien diferente, que dentro de 20 años, el retrato sea más nítido que en la actualidad.

Gidak eta txostenak | Guías e informes

Genero programak eta politikak. Sorkuntzaren eta industriaren ikuspegitik antzerkia, dantza, liburu eta musikaren arloan genero-berdintasunaren egoera diagnostikoa Euskadin

 https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/ka_genero_politikak_dok/eu_def/adjuntos/genero-programak-politikak-2019.pdf

Programas y políticas de género. diagnóstico de situación de la igualdad de género en el ámbito del teatro, la danza, el libro y la música desde la perspectiva de la creación y la industria en Euskadi

 https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/ka_genero_politikak_dok/es_def/adjuntos/programas-politicas-genero-2019.pdf

Gender mainstreaming toolkit

 <https://eige.europa.eu/gender-mainstreaming/toolkits/gender-impact-assessment>

Guías sobre el uso del lenguaje no sexista (recopilación)

 https://www.inmujeres.gob.es/servRecursos/formacion/GuiasLengNoSexista/docs/Guiaslenguajensexista_.pdf

Feminismoa eta berdintasuna hiztegia

 https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/hiztegiak_euskara/es_def/adjuntos/Feminismoa_eta_berdintasuna-Hiztegia.pdf

Guía para el uso no sexista de la lengua castellana y de imágenes en la UPV/EHU

 https://www.ehu.eus/documents/1734204/1884196/Guia_uso_no_sexista_EHU.pdf

Kontratu publikoetan, diru-laguntza publikoetan, hitzarmenetan eta gizarte-itunetan genero-ikuspegia txertatzeko gida

Guía para la incorporación de la perspectiva de género en los contratos públicos, las subvenciones públicas, los convenios y los conciertos sociales

 https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_clau_intro_00/es_def/adjuntos/A1_IncorporacionPerspectivaGenero_eu.pdf

 https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_clau_intro_00/es_def/adjuntos/A1_IncorporacionPerspectivaGenero.pdf

Publizitate eta komunikazio ez sexistarako kode deontologikoa eta autoerregulaziokoa

 https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/temas_medios_intro/eu_def/adjuntos/begira.kode.deontologikoa.pdf

Código deontológico y de autorregulación para la publicidad y la comunicación no sexistas

 https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/temas_medios_intro/es_def/adjuntos/begira.codigo.deontologico.pdf

Seinaleztapen parekidea (ejemplo) / Señalización igualitaria (ejemplo)

 <https://www.helicecomunicacion.com/portfolio/señalizacion-igualitaria>

Euskararen erabilera ez sexista egiteko gida

 https://www.andoain.eus/documents/131314/8202049/Euskararen+erabilera+ez+sexista+egiteko+gida_inpr.pdf/c55aed3d-6d27-5f66-77b9-37f1fa381b2b

Hizkuntza inklusiborako gida

 <https://www.mondragon.edu/documents/20182/533143/hizkuntza-inklusiborako-gida.pdf/910cc16b-19dc-41e0-aa2c-df0e0d240dc9>

UPV/EHUn euskararen eta irudien erabilera ez-sexistarako gida

 https://www.ehu.eus/documents/1734204/1884196/Ez_sexistan_erabiltzeko_gida_EHU.pdf

Euskararen erabilera ez-sexista

 https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_guias2/es_emakunde/adjuntos/eusk_gida_eu.pdf

Emakunde

[🔗 https://www.emakunde.euskadi.eus/argitalpenak](https://www.emakunde.euskadi.eus/argitalpenak) / <https://www.emakunde.euskadi.eus/publicaciones>

Observatorio de Igualdad de Género en el ámbito de la Cultura

[🔗 https://www.culturaydeporte.gob.es/cultura/mc/espacio-de-igualdad/observatorio-igualdad-genero-cultura.html](https://www.culturaydeporte.gob.es/cultura/mc/espacio-de-igualdad/observatorio-igualdad-genero-cultura.html)

UNESCO's Promise: Gender Equality – a Global Priority

[🔗 http://www.unesco.org/new/fileadmin/MULTIMEDIA/HQ/BSP/GENDER/PDF/GEAPweb.pdf](http://www.unesco.org/new/fileadmin/MULTIMEDIA/HQ/BSP/GENDER/PDF/GEAPweb.pdf)

Proyecto de estrategia a medio plazo de la Unesco (2014-2021)

[🔗 https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000220031_spa](https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000220031_spa)

Hacer las promesas realidad: La igualdad de género en la Agenda 2030 para el Desarrollo Sostenible

[🔗 https://www.unwomen.org/es/digital-library/publications/2018/2/gender-equality-in-the-2030-agenda-for-sustainable-development-2018](https://www.unwomen.org/es/digital-library/publications/2018/2/gender-equality-in-the-2030-agenda-for-sustainable-development-2018)

[🔗 https://youtu.be/AP8zqHHWrxA](https://youtu.be/AP8zqHHWrxA) / <https://youtu.be/FUbAOVTykRk>

Gako praktikoak genero-ikuspegia aintzat hartzen duten komunikazio-moldeak abiatzeko

[🔗 https://reaseuskadi.eus/wp-content/uploads/checklist-genero-eus.pdf](https://reaseuskadi.eus/wp-content/uploads/checklist-genero-eus.pdf)

Gestión cultural y género (Manual Atalaya de Gestión Cultural)

[🔗 http://atalayagestioncultural.es/capitulo/gestion-cultural-y-genero](http://atalayagestioncultural.es/capitulo/gestion-cultural-y-genero)

La perspectiva de género en la cultura española. Mujeres y cultura en cifras
(Visiones multidisciplinares de la igualdad entre hombres y mujeres)

[🔗 https://www.researchgate.net/publication/336210372](https://www.researchgate.net/publication/336210372)

Gender in Culture (European Institute for Gender Equality)

[🔗 https://eige.europa.eu/publications/gender-culture](https://eige.europa.eu/publications/gender-culture)

Genero-identifikazioari buruzko txostena Donostia Zinemaldian 2021

[🔗 https://www.sansebastianfestival.com/admin_img/documentos/informe_2021_genero_eu.pdf](https://www.sansebastianfestival.com/admin_img/documentos/informe_2021_genero_eu.pdf)

Informe de identificación de género en el Festival de San Sebastián 2021

[🔗 https://www.sansebastianfestival.com/admin_img/documentos/informe_2021_genero_es.pdf](https://www.sansebastianfestival.com/admin_img/documentos/informe_2021_genero_es.pdf)

Planes de igualdad. (Normativa aplicable)

[🔗 https://www.igualdadenlaempresa.es/faq/respuestas.htm#q04](https://www.igualdadenlaempresa.es/faq/respuestas.htm#q04)

Generoari buruzko dokumentazioa

[🔗 https://www.bertsozale.eus/eu/feminismoa/dokumentazioa/#generoikuspegiakulturanetaeszenan](https://www.bertsozale.eus/eu/feminismoa/dokumentazioa/#generoikuspegiakulturanetaeszenan)

GKEtan generoak dituen errestentziengatik analisia / Análisis de las resistencias al género en las ONG

[🔗 https://www.elankidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/genero_avcd/es_def/adjuntos/Analisis%20Resistencias%20al%20Genero%20en%20las%20ONG%20de%20Desarrollo.pdf](https://www.elankidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/genero_avcd/es_def/adjuntos/Analisis%20Resistencias%20al%20Genero%20en%20las%20ONG%20de%20Desarrollo.pdf)

Red de investigación en arte y feminismos

[🔗 https://riaf.es](https://riaf.es)

Bibliografía | Bibliografia

Eskafandra bilduma feminista (Elkar)

 <https://elkarargitaletxea.eus/liburuak/?bilduma=Eskafandra>

Teoría feminista: de los márgenes al centro

 <https://traficantes.net/libros/teor%c3%ada-feminista>

Festak, genero-harremanak eta feminismoa. Begirada teoriko eta antropologikoak, praktika sortzaileak eta plazeraren kudeaketa kolektiboak (Miren Guilló Arakastain)

 <https://katakrak.net/cas/lib/festak-genero-harremanak-eta-feminismoa>

Arte-ekoizpen feministak euskal testuinguru kulturalean. Arte-instituzio garaikideetako praktika: Arteleku zentroa eta Montehermoso Kulturunea (Maider Zilbeti Pérez)

 <https://addi.ehu.es/handle/10810/20547>

Autoras en el audiovisual, la música y las artes escénicas : un estudio sobre el desarrollo profesional desde una perspectiva de género

 http://www.fundacionsgae.org/es-ES/SitePages/Programacion_Noticia.aspx?i=993&s=12

La vanguardia en femenino: artistas revolucionarias, mujeres transgresoras

 <https://katalogoa.tabakalera.eus/cgi-bin/koha/opac-detail.pl?biblionumber=678775>

¡Protesto! : videojuegos desde una perspectiva de género

 <https://editorialanaitgames.com/producto/protesto-videojuegos-desde-una-perspectiva-de-genero>

Genealogías feministas en el arte español: 1960-2010

 <https://katalogoa.tabakalera.eus/cgi-bin/koha/opac-detail.pl?biblionumber=665274>

Arte se escribe con m de mujer

 http://www.sdedicions.com/fitxa_llibre.php?id=122

Regina Galindo

 <https://katalogoa.tabakalera.eus/cgi-bin/koha/opac-isbddetail.pl?biblionumber=663602>

 <https://katalogoa.tabakalera.eus/cgi-bin/koha/opac-detail.pl?biblionumber=665555>

Zure begietarako bakarrik, feminismo faktorea arte bisualak direla eta

Sólo para tus ojos, el factor feminista en relación a las artes visuales

 <https://artxibo.arteleku.net/eu/islandora/object/arteleku%3A385>

Arte, literatura y feminismos : lenguajes plásticos y escritura en Euskal Herria

 <https://www.iberoamericana-vervuer.es/FichaLibro.aspx?P1=176305>

La urgencia de vivir

 <https://katalogoa.tabakalera.eus/cgi-bin/koha/opac-isbddetail.pl?biblionumber=696763>

Emakumeak, kultura eta politika

 <https://katakrak.net/eus/argitaletxea/liburua/emakumeak-kultura-eta>

The Art of Feminism: Images that Shaped the Fight for Equality

 <https://www.chroniclebooks.com/products/the-art-of-feminism>



El feminismo es para todo el mundo

[🔗 https://www.traficantes.net/sites/default/files/pdfs/TDS_map47_hooks_web.pdf](https://www.traficantes.net/sites/default/files/pdfs/TDS_map47_hooks_web.pdf)

50 conceptos sobre el feminismo. Orígenes, ideas y desarrollo

[🔗 https://blume.net/catalogo/1884-50-conceptos-sobre-el-feminismo-9788417757403.html#](https://blume.net/catalogo/1884-50-conceptos-sobre-el-feminismo-9788417757403.html#)

Ciudad feminista. La lucha por el espacio en un mundo diseñado por hombres

[🔗 https://www.bellaterra.coop/es/libros/ciudad-feminista](https://www.bellaterra.coop/es/libros/ciudad-feminista)

Hablemos claro. Retórica y uso del lenguaje en el feminismo

[🔗 https://www.catarata.org/libro/hablemos-claro_129518](https://www.catarata.org/libro/hablemos-claro_129518)

Jardunbide egokiak | Buenas prácticas

Women's Legacy

Ondarea. Emakumeen emaria / Patrimonio. Herencia de mujer

[🔗 https://www.womenslegacy.eu](https://www.womenslegacy.eu)

Kultur ondarearen eta genero ikuspegia liburu zuria (Women's Legacy)

[🔗 https://www.womenslegacy.eu/wp-content/uploads/2021/07/Libro_WL_EU_digital.pdf](https://www.womenslegacy.eu/wp-content/uploads/2021/07/Libro_WL_EU_digital.pdf)

Patrimonio cultural y perspectiva de género. Libro blanco (Women's Legacy)

[🔗 https://www.womenslegacy.eu/wp-content/uploads/2021/07/Libro_WL_digital_ES.pdf](https://www.womenslegacy.eu/wp-content/uploads/2021/07/Libro_WL_digital_ES.pdf)

Euskal Emakume Artisten Ikerketa eta Dokumentazio Zentroaren. Praktika artistiko eta artearen teoria feministak / Centro de investigación y documentación de artistas vascas. Prácticas artísticas y teorías del arte feministas

[🔗 https://www.artium.eus/eu/euskal-emakume-artisten-dokumentazio-zentroa](https://www.artium.eus/eu/euskal-emakume-artisten-dokumentazio-zentroa)

Mujeres en las Artes Visuales. Herramienta de autodiagnóstico para la igualdad en museos y centros de arte, y su fundamentación teórica y metodológica

[🔗 https://mav.org.es/herramienta-mav-para-la-igualdad](https://mav.org.es/herramienta-mav-para-la-igualdad)

[🔗 https://mav.org.es/publicaciones-presentacion-del-autodiagnostico-mav-para-la-igualdad-en-museos](https://mav.org.es/publicaciones-presentacion-del-autodiagnostico-mav-para-la-igualdad-en-museos)

Strategy for gender equality (Eurimages)

[🔗 https://www.coe.int/en/web/eurimages/gender-equality](https://www.coe.int/en/web/eurimages/gender-equality)

Quote This Woman. Base de datos online para incrementar la citación a expertas mujeres

[🔗 https://quotethiswoman.org.za](https://quotethiswoman.org.za)

Premis Comunicació no sexista (Associació de Dones Periodistes de Catalunya)

[🔗 http://www.adpc.cat/new_site/?page_id=105](http://www.adpc.cat/new_site/?page_id=105)

Prentsari begira | Revista de prensa

Xabier Arakistain Arakis «Berdintasun legeak garatzeko bide orria idatzi du Montehermosok»

<https://www.berria.eus/paperekoa/1613/032/001/2011-12-20/berdintasun-legeak-garatzeko-bide-orria-idatzi-du-montehermosok.htm>
<https://arakis.info>

Arrate Hidalgo «Feminismora zientzia fikzioa irakurtzearen bidez iritsi nintzen»

<https://www.berria.eus/paperekoa/1886/040/001/2022-02-05/feminismora-zientzia-fikzioa-irakurtzearen-bidez-iritsi-nintzen.htm>

Zilarrezko ahizpatasunak

<https://www.berria.eus/paperekoa/1883/038/001/2022-02-05/zilarrezko-ahizpatasunak.htm>

Jerarquía y poder. El factor humano en la 'nueva política' y en el feminismo institucional

<https://www.elsaltodiaro.com/palabras-en-movimiento/el-factor-humano-en-la-nueva-politica-y-en-el-feminismo-institucional>

Feminismo para todo el mundo

<https://www.revistaanfibio.com/feminismo-para-todo-el-mundo>

Alice Guy

<https://www.fotogramas.es/noticias-cine/a18633552/la-verdadera-historia-de-alice-guy-blache-pionera-del-cine>

Hitzaldiak | Charlas

Euskarazko hizkera sexista, baita nahi gabe ere (Irene Arrarats Lizeaga)

https://youtu.be/CB_LnscnuHk

Conversaciones sobre el futuro de las creadoras

<https://youtu.be/Yz-SgHkptqw>

Nerea Luis. Un encuentro distendido para saber más sobre inteligencia artificial

https://youtu.be/CEnGU5zU_QY

La revolución hoy (Angela Davis)

<https://www.cccb.org/es/multimedia/videos/angela-davis/227656>

Ecofeminismo para un nuevo modelo de desarrollo (2022/02/25)

<https://www.lacasaencendida.es/encuentros/eco-feminismo-nuevo-modelo-desarrollo-13289>

Mujeres de cine. Perspectiva feminista del relato audiovisual (Pilar Aguilar Carrasco)

<https://youtu.be/IDOY6rZIBMw>

<https://www.rtve.es/play/audios/hora-america/hora-america-pilar-aguilar-presenta-papel-mujeres-cine/5158605>

Baginen Bagara: diskursoa (des)eraikitzen (Haizea Barcenilla)

<https://www.youtube.com/watch?v=ewLTov0Tsew>

La igualdad de género en los programas europeos

<https://youtu.be/E7DXeF2oZl0>

Ikastaroak | Cursos

Praktika artistikoak eta kultur ikasketak: gorputza, afektuak, lurraldea masterra
Máster en prácticas artísticas y estudios culturales: cuerpo, afectos, territorio

 <https://www.centrohuarte.es/master/>

La vida en el centro del arte. Creación artística y ecofeminismo

 <https://www.lacasaencendida.es/cursos/genero/vida-centro-arte-creacion-artistica-ecofeminismo-13193>

La cara B de la realidad: Feminismo Weird

 <https://www.lacasaencendida.es/cursos/artes-plasticas/cara-b-realidad-feminismo-weird-13206>

Pla d'igualtat a les organitzacions (APGCC Professionals de la gestió cultural)

 <https://gestiocultural.org/curs/59/Pla-d'E80%99igualtat-a-les-organitzacions>

Taller de comunicació inclusiva

 <https://gestiocultural.org/curs/67/Taller-de-Comunicacio-Inclusiva>

Arte y género: una mirada al pasado y el presente

 <https://asmoz.eus/es/producto/arte-y-genero-una-mirada-al-pasado-y-el-presente>

Euskararen erabilera ez sexista

 <https://asmoz.eus/eu/producto/euskararen-erabilera-ez-sexista>

Jardunaldiak eta azokak | Jornadas y ferias

Arte y género en Art Madrid'16

 <https://femiagenda.org/portfolio/arte-y-genero-en-art-madrid16>

Jornadas Canarias Cultura

 <http://www.gobiernodecanarias.org/cultura/ccr/Jornadas/JornadasCanariasCultura2020.html>

Encuentro Internacional 'Mil Formas de Mirar y Hacer'

 <https://www.arteycompromiso.com/vii-encuentro-internacional-mil-formas-de-mirar-y-hacer-artes-y-mujeres-invisibilidades-y-nuevas-agencias>